

KA TOPAKETAREN #6 ESKEMA (2015.04.12)

I. KA-REN AURKEZPENA ETA LABURPENA

II. KIDE BERRIEN AURKEZPENA

III. FINANTZAZIOA:

KA-ri ofizialki aurkeztu zaizkio DSS2016 eta Diputazioaren diru-laguntzak, bai Partehartze departamentukoak eta baita Kultura departamentukoak ere.

IV. PECHAKUTXA:

Hilaren 17an irudiak aurkeztuko dira eta 24an 20 irudien aurkezpena izango da, irudi bakoitzak 20 segundoko azalpena izango duelarik. Formatu elebiduna izango da, portada eta kontraportadarekin eta aurkezle bakoitzeko 9 irudi azalduko ditu. Etorkizunerako planak: KA aurkeztu (1-2 irudi) kideak diren artisten etorkizuneko Pechakutxetan.

V. KA ZUZENEAN #2 SARRERA DOHAIN APIRILAK 18, 19:00tatik 23:00tara:

KA-ren bigarren ekimena izango denaren aurkezpen motza behin betiko kartelarekin. Oraingoan espazio handiago batean egingo da (Doka) eta ekintza gehiago barneratuko ditu. Larunbat horretan bertan Doka 11:30-etatik zabalik egongo da prestaketetan parte-hartzeko.

VI. KA KOMUNIKAZIOA

Honako honen beharra ikusten da:

- ✚ Ekimen bakoitzerako gidoi/aurkezpen bat, KA zer den azaltzen duten eskuorri batzuk izatea ekimen guztietan, Facebooken ekimena bultzatzea, etab.
- ✚ Irudi Korporatibo zehatz eta bateratua.
- ✚ KA-ren bozeramaile edo kontaktu instituzional bakarra.

Flickr, Youtube edo Vimeon egoteko proposamena egin da.

VII. OLATU TALKA / RESAKA – MAIATZAK ETA EKAINAK 6 ANTIGUOKO FRONTOIEAN 11:00tatik 20:00tara:

Lehenengo larunbatean, Donostia Kulturaren “aterkipean” egongo gara eta “bere” Olatu Talkan. Auzoko agenteak barneratzea erabaki da (elkarteak, artistak, etab.). Bigarren Olatu Talkan, kartel osoa KA-ko artistez osatua egongo da eta kutsu aldarrikatzaileago bat izango du.

Bi kasuetan, programa berbera izango da.

VIII. DEBATE IREKIA:

- ✚ Soraya, bere “InVaginación” proiektuarekin aurkezten da, eta gainera modeloak bilatzen ari da Maiatzaren 31ean Olatu Talkan egingo duen BodyPainting-erako. Ostiralean poesia tailer bat egingo du liburu-denda batean.

- ✚ Makokik ekintzak antolatzen baimenak orain eskatu behar direla dio, hauek eskatzeko epea, ekimena gauzatu baina 40 egun lehenagokoa delako eta arazoak aurreikusten ditu elikagai manipulazioarengatik.
- ✚ Ekimen guztiak Festa Herrikoientzako udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira. Baimenak ez ematea posible denez, (batez ere ResaKA-rentzat) ekimen alternatiboak planteatzen ditugu.
- ✚ Iñakik, KA zabaltzea proposatzen du. Ez soilik ekimen eta elkarte artistikoei, baita esparru sozialari ere. “Hormak botatzea” eta “ikusaraztea” ez da soilik Kulturaren beharra, eta sinergia interesgarriak sortu daitezke. Hainbat ideia planteatzen ditu, adibidez, Martuteneko kartzelan KA Zuzenean bat antolatzea, kolektibo “ikusezin”-ekin kolaboratzea, hala nola, Down Sindromea duen jendearekin edo Alkoholiko Anonimoekin. Kartzela batean ekimen bat egiteko beharrezkoak diren baimenak “beste mundu batekoak” dira baina inizatiba orokorrean aldeko eta kontrako arrazoiekin baloratzen da.

IX. KA ZUZENEAN #3:

Maiatzean Olatu Talka eta Ekainean ResaKA egongo direnez, Uztailerarte KA Zuzenean-ik ez egitea planteatzen da. Hurrengo, Uztailaren 16ean izango litzateke 9:00/9:30-tatik 19:00/20:00-ak arte.

X. HURRENGO TOPAKETA:

Eguna errepikatzea erabakitzen da (igandea) hasiera pixka bat atzeratuta (18h) eta hainbat data planteatzen dira.: Maiatzak 10 18:00-retan Olatu Talka eta ResaKA aurretik denbora izateko.

KA TOPAKETA #6 AKTA OSOA (2015.04.12)

KA-REN AURKEZPENA ETA LABURPENA

Kide berriak daudenez, Jokinek KA-ren aurkezpen labur bat egin du (egindako ekimenen laburpena, proiektuan dauden ekimenak, Sorkuntza prozesua, finkatutako helburuak, antolakuntza Egitura eta barne funtzionamendua).

KIDE BERRIAK

- ✚ Mario Simancas. Ipso Facto Aretoa (Irún), monologo eta antzerkira zuzendua orokorrean.
- ✚ Rubén Martín. Latitud 43 taldeko partaidea (musika taldea).
- ✚ Iñigo Malvido. Argazkilaria eta InfoRock-eko kidea.
- ✚ Metal Norte (bi kide). Heavya eta Rockaren inguruko informazioko Web Orria, eta urteroko jaialdia Irunen.
- ✚ Urko. Kantautorea.
- ✚ Andoni. Argazkilaria eta Diseinu Grafikoa.
- ✚ Uxue. Diseinu Grafikoa, kreatibitatera bideratua.
- ✚ Soraya. Artista multidisziplinarra, pintura, poesia eta performanceak.
- ✚ Cristina. Eskultura, feltroa eta beste ehungintzako elementuak. Irlandan 10 urte pasa ondoren, kontaktu kulturala berriz ere hartzera etorri da.
- ✚ Christian. Bideo Edizioa. Olatu Talkaren izenean etorri da Donostia Kulturak eredu bezala aukeratu gaituelako bere promozio bideorako.
- ✚ Baxujolea (Inputt) eta sukaldari profesionala.

FINANTZAKETA

KA-ri ofizialki aurkeztu zaizkio DSS2016 eta Diputazioaren diru-laguntzak, bai Partehartze departamentukoak eta baita Kultura departamentukoak ere. Lehenengoaren kasuan, zerrenda bateko bi puntu bete behar dira gutxienez. KA-k zerrenda horretako puntuen %90a betetzen du. Bigarreanean, badirudi KA orain arte aurkeztu den Plataformarik solidoena dela.

PETXA KUTXA

Lan taldea aste honetan bilduko da. Hilaren 17an irudiak aurkeztuko dira eta 24an 20 irudien aurkezpena izango da, irudi bakoitzak 20 segundoko azalpena izango duelarik. Formatu elebiduna izango da, portada eta kontraportadarekin eta aurkezle bakoitzeko 9 irudi azalduko ditu (bat euskaraz eta bestea gazteleraz). Iñakik hurrengo Petxa Kutxetan parte hartzea proposatzen du, KA aurkeztuz (1-2 irudi) kideak diren artisten lanez gain.

KA ZUZENEAN #2 ENTRADA GRATUITA 18 ABRIL DE 19H A 23H

KA-ren bigarren ekimen hau izango denaren laburpen motza, behin betiko kartelarekin. Oraingoan espazio handiago batean egingo da, (Doka) eta ekintza gehiago gauzatuko dira.

- ✚ 2 Artisautza postu
- ✚ Txiki Txoko, Marrazki eta Papiroflexiarekin
- ✚ Litrograbado erakusketa
- ✚ Tallas-en erakusketa (las puertas del Infierno)
- ✚ Ekimenen artean, mago bat eta bi kantautore egongo dira.
- ✚ Musika ekimen nagusiak Indigoren kargu, Burundanga eta Bluegrass talde bat, festaren amaierarako.
- ✚ Lehenengo aldiz dohaintzentzat kutxa bat egongo da. Publikoarekin interakzioa bilatzen da, publikoa artistan bilakatu dadin, batez ere txiki-txokoan.
- ✚ Lunch bat ere egongo da.

Larunbat horretan bertan Doka 11:30-etatik zabalik egongo da prestaketetan parte-hartzeko (pintxoak eman, eszenatokia montatu, erakusketa eta tailer guneak). Auzoko Elkartean janaria emanaz lagundu nahi duenarentzat irekia dago.

KA KOMUNIKAZIOA

Ekimen bakoitzerako gidoi/aurkezpen bat beharrezkoa dela ikusten da, baita ere, KA zer den azaltzen duten eskuorri batzuk izatea, Facebooken ekimena bultzatzea, etab.

Irudi korporatibo zehatz eta bateratu bat izatearen beharra berriz ere planteatzen da eta Makokik, KA-ren bozeramaile edo kontaktu instituzional bakarra egotea proposatzen du. Beti pertsona berdina eta kontakturako telefono zenbaki berdina.

Flickr proposatzen da kalitatea altuan KA-ren ekimenen argazkien artxibo bat izateko (Urtean 30€). Youtube eta Vimeorako ere kanal propioak sortzea proposatzen da.

OLATU TALKA / RESAKA – MAIATZAK ETA EKAINAK 6 ANTIGUOKO FRONTOIEAN 11:00tatik 20:00tara:

Lehenengo larunbatean, Donostia Kulturaren “aterkipean” egongo gara eta “bere” Olatu Talkan. Auzoko agenteak barneratzea erabaki da (elkarteak, artistak, etab.). Bigarren Olatu Talkan, kartel osoa KA-ko artistez osatua egongo da eta kutsu aldarrikatzaileago bat izango du.

Bi kasuetan, programa berbera izango da. Circus Paraderekin hasiko da, Pirata zirkoko zuzendari moduan egongo delarik partehartzera dei eginez. Gehienez 30 minutuko buelta bat emango dugu auzotik zehar malabaristen, pailazoen eta magoen ikuskizunekin batera Frontoiera bidean. Bertan, aurkezpen txiki baten ondoren, umeentzako ekintzak hasiko dira, ekintzek denbora jakin bat iraungo dute haurrek ekintza ezberdinak egin ditzaten. Musika ekitaldiak, pintura zuzenean, eta “cadáver exquisito” (A4 kartulina indibidualekin sortutako marrazki-mural bat) umeek egingo dutena lñakirekin.

Ekimen nagusi bezala, auzoko musika talde batek 45 minutuko kontzertua emango du. Bestalde, KA-ko kantautoreak ere izango dira, magoak... Eszenatokia, ohikoak baino baxuagoa eta gertuagoa jarri nahi da, publikoa gertuago sentitu dadin.

Eguerdian, Carlosek zuzendutako pintxo hotzen lehiaketa bat egongo da.

Arratsaldean Koska talde lokalak joko du eta amaiera bezala, Sabur-rek zuzendutako bi orduko Karaokea egongo da. Lehen ordua helduei zuzenduta eta azken ordua festa girokoa, publiko gaztearekin gehiago jolastuz.

DEBATE IREKIA:

Soraya, bere “InVaginación” proiektuarekin aurkezten da. Proiektu hau Crowdfunding baten bitartez eraman du aurrera eta honi esker, Kursalean egongo da Jazzaldiarekin batera. Gainera modeloak bilatzen ari da Maiatzaren 31ean Olatu Talkan egingo duen BodyPainting-erako. Ostiralean poesia tailer bat egingo du liburu-denda batean.

Makokik ekintzak antolatzeko baimenak orain eskatu behar direla dio, hauek eskatzeko epea, ekimena gauzatu baina 40 egun lehenagokoa delako eta arazoak aurreikusten ditu elikagai manipulazioarengatik. Carlosek arazo honi irtenbidea eman diezaioke eta auzoko partaidetzak eta herri formatuak gainontzekoa egin.

Konstituzio plazan egingo diren ekimen guztiak Festa Herrikoientzako udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira. Baimenak ez ematea posible denez, (batez ere ResaKA-rentzat) ekimen alternatiboak planteatzen ditugu.

Iñakik, KA zabaltzea proposatzen du. Ez soilik ekimen eta elkarte artistikoei, baita esparru sozialari ere. “Hormak botatzea” eta “ikusaraztea” ez da soilik Kulturaren beharra, eta sinergia interesgarriak sortu daitezke. Hainbat ideia planteatzen ditu, adibidez, Martuteneko kartzelan KA Zuzenean bat antolatzea, kolektibo “ikusezin”-ekin kolaboratzea, hala nola, Down Sindromea duen jendearekin edo Alkoholiko Anonimoekin.

Kartzela batean ekimen bat egiteko beharrezkoak diren baimenak “beste mundu batekoak” dira baina inizatiba orokorrean aldeko eta kontrako arazoiekin baloratzen da. Sorayaren bidez, kartzelako Zeramika Tailerreko irakaslearekin harremanetan jartzeko aukera zabaltzen da, bertan ekimen kultural bat egiteko.

KA ZUZENEAN #3

Maiatzean Olatu Talka eta Ekainean ResaKA egongo direnez, Uztailean KA Zuzenean-ik ez egitea planteatzen da. Antxonek espazio txikiago bat proposatzen du baina Makokik Catalunya plazan (Txofre plazan euria egin ezker) Groseko festekin eta Artisautza azokarekin espazioa elkarbanatzea proposatzen du. Hurrengo, Uztailearen 16ean izango litzateke 9:00/9:30-tatik 19:00/20:00-ak arte.

HURRENGO TOPAKETA

Eguna errepikatzea erabakitzen da (igandea) hasiera pixka bat atzeratuta (18h) eta hainbat data planteatzen dira.: Maiatzak 10 18:00-retan Olatu Talka eta ResaKA aurretik denbora izateko.